

SOZIOLOGIA ETA GIZA ANTROPOLOGIA

Gizarte Hezkuntza, 1. Maila

2007-2008 ikasturtea

Irakaslea: Nekane Beloki Arizti

Saila: Soziologia I

Bulegoa: 19

Telefonoa: 946014602

E-mail: nekane.beloki@ehu.es

Tutoretza orduak:

Asteartea 9.00-9.30

13.00-14.30

Asteazkena 9.30-11.00

12.00-14.30

Helburuak

Hasi berri duzuen ibilbide honetan oraindik gauza gutxi izango dituzue argi aukeratu duzuen lanbidearen inguruan. Baina ziur nago badakizuela gizarte hezitzaileak jendearekin lan egiten duela. Oso erakunde ezberdinetan lan egin dezake gizarte hezitzaileak, oso proiektu diferenteetan...bainan beti pertsonekin lan egin beharko du.

Badakizue, baita ere, jende guzti hau kontestu soziokultural jakin batzuetan bizi dela, hau da, gizarte bateko eta kultura bateko partaide dela eta partaidetza honek eragin zuzena izango duela bere bizitzako arlo guztietan.

Hemendik abiatuz hauxe da asignatura honek eskeini nahi dizuen: soziologian eta antropologian oinarrituz, gizarte hezitzaile moduan lan egingo duzuen errealitate sozial eta kulturala ulertzeko baliabide teorikoak erreztu nahi dizkizue. Hain zuzen ere, zuen lana ongi egiteko jendea ongi ezagutu beharko duzue eta jendea ongi ezagutzeko bere inguru soziala eta kulturala ezagutu beharko dituzue.

Beraz, asignatura honetan gizakia, gizartea, kultura bezalako kontzeptuen inguruko hausnarketa teorikoa bultzatuko dugu: guztion artean egingo dugun hausnarketa.

Programa

1. Zer da Soziologia? Zer aztertzen du eta nola aztertzen du?
2. Nortasuna eta gizarteratze prozesua.
3. Paper sozialak eta status sozialak.
4. Gizarte ordena eta gizarte kontrola.
5. Konformitatea eta desbideraketa
6. Gizarte aldaketa

Lan metodologia

Irakasleak gai ezberdinak azalduko ditu klasean, une batzuetan materiale gehigarria ere erreztuko duelarik.

Azalpen teorikoak ariketa praktikoekin konbinatuko dira lauhilabetez zehar.

Ikasleen partaidetza oso garrantzitsua izango da. Haseran aipatu dugun bezala, elkarrekin hausnarketa lan bat egingo dugu.

Ebaluaketa

Asignatura gainditu ahal izateko azterketa egin eta gainditu beharko da. Azterketa 10 galdera labur eta konkretuz osaturik egongo da (galdera bakoitzak puntu 1 balioko du) eta gainditu ahal izateko, ohikoa den bezala, gutxienez 5 puntu atera beharko dira.

Ikasgai hau gainditzeko, gainera, edukiaren jakite maila ez ezik, euskara maila nahikoa ere erakutsi behar da.

Bibliografia

Paul B. Horton y Chester L. Hunt "Soziologia" EHU, Bilbo 1994.

Peter L. Berger "Soziologiarako gonbitea" EHU, Bilbo, 1992.

Guy Rocher "Introducción a la sociología general" Herder, Barcelona, 1973.

John J. Macionis / Ken Plummer "Sociología" Prentice Hall, Madrid, 1999.

Anthony Giddens "Sociología" Alianza Universidad Textos, Madrid 1995.